

## KANALAK

Kanala gure enpresa merkatuan leku bat egiteko erabiltzen da. Horretarako hainbat modu ezberdin daude bezeroengana heltzeko. Gure ustetan, gure aplikazioa ahalik eta publiko zabalenera heltzeko ahoz-ahozkoa bide zuzenena dela uste dugu, horregatik aplikazioaren publizitatea egiten ondorengo bideak bururatu zaizkigu:

- ★ Sare sozialetan perfil bat irekitzea (instagram, facebook)
- ★ Sare sozialetan publizitatea egin (Spotify, instagram, web orrialdea...)
- ★ Perstonai publikoekin kolaborazioa

Sare sozialei esker publiko zabal batera hel gaitzke. Izan ere, gaur egun gazteria gehiengoak hainbat sare sozial ditu. Horregatik zenbait sare sozialetan gure app-aren kontua irekiko dugu, batetik instagram kontu bat sortuko dugu, non aplikazioaren funtzionamendua, nobedadeak, berriak eguneratuak...argitaratuko ditugu. Facebook-eko kontuan berriz, ez gara gure aplikazioan zentratuko eta nutrizioarekin lotutako zenbait berri argitaratuko ditugu. Horrez gain, berezok aplikazioa erabiltzen hasi direnetik izan dituzten aldaketak ere plazaratuko ditugu bai instagram baita facebook kontuetan ere.

Gure app-aren publizitatea ere sare sozial bidez egingo dugu. Kolaborazio bidezkoa izango da, bai personai publikoekin kolaborazio bat eginez, hau da, guk diru kantitae zehatz bat eskaintzen diegu beraiek euren sare sozialetan gure aplikazioataz hitz egitearen truke, baita sare sozialarekin kolaborazioa eginez.

